



Art & Joy

KIRIBIL Elkartea

Larreko kulturgunea
2, Xan Ithourria plaza
64310 Senpere

N° SIRET: 75 13 40 084 000 19
APE : 900 1 Z – Elkarte zenbakia : W641004579
Ikuskizun produkzio eta hedapen Lizentziak :
2-011882 et 3-011891

Internet gunea : www.kiribil.eus

Facebook : @kiribilkonpania

Harremana : kiribilinfo@gmail.com

Amaia Hennebutte +33(0)6 72 62 0814

Fabrice Jacob +33 (0)6 16 50 89 71

1/ SARRERA

Kiribil euskal konpainia artistiko bat da (egoera juridikoa: elkarte).

Duela hamabost urte baino gehiago sortua, hainbat arlotan lan egiten du :

- ikuskizunen sorkuntzan,
- euskal haur eta gazte literaturan,
- eskaintza kulturaletik urrunduak diren pertsonekin proiektu artistikoen

garapenean: edozein pertsona sormen prozesuan sarturik, gaixotasun mentalaz, desgaitasunaz, elbarritasunaz edo bestez sufritzen dutenek...

- larrialdi kultural humanitarioa. Proiektu bat Libanon, Siriako mugan, egin zen.

Art & Joy Larrialdi Kultural Humanitario proiektu bat da.

2/ Art & Joy PROIEKTUAREN AURKEZPEN OROKORRA

Art & Joy deneri zabaldua den praktika artistikoak transmititzeko proiektua da. Tailerren ondotik, maleta baten bidez egingo da transmizioa.

Larrialdi Kultural Humanitarioaren kontzeptuan oinarritzen da: artearen eta kulturaren funtsezko beharra konfirmatzen du, krisia eta gerra egoeretan ere. Artea ez da luxu bat: ezinbestekoa da giza garapenerako eta duintasunerako. Orduan Kiribil elkarteak bere esperientzia eta tresna artistikoak ahalik eta jende gehienarekin partekatzea erabaki du.

Art & Joy joko artistikoak guztiontzat eskuragarriak izateko diseinatuak dira: ez dute trebetasun berezirik aurretik behar, ez prestakuntza artistikorik ez eta ekipamendu berezirik ere.

Haien sinpletasuna eta unibertsaltasuna dira proiektuaren muina.

Transmizioa errexteko, **maleta bat utziko da tailer bakoitzaren ondotik.**

Maleta barnean, **joko bakoitzak azalpen bideo bat dauka, QR kode bidez eskuragarri, esperientzia artistikoan zehar urratsez urrats gidatua ahal izateko.**

Transmizio honetaz gain, **kaleko emanaldi bat aurkeztuko da ere, publiko guztiendako egokia** : ekitaldi bizia eta alaia, poza edozein tokitan eta edozein unetan partekatzeko aukera ematen duena.


Lehen bidaia bat 2026ko maiatzean, Ukrainian egingo da.
Horren ondotik, mundu osoko beste bidaia batzuk egingo dira.

Gure proiektua hiru arlo nagusitan egituratzen da:

- **Pertsonen arteko konfiantza garatzea, elgar entzutea eta lotura indartzea.**
- **Jarduera fisikoa eta mentala sustatzea.**
- **Irudimena eta sormena sustatzea ongizatearen eta harreman sozialaren eragile gisa.**

Trauma eta osasun mentalari erantzuteko, guk praktika ludiko eta sortzaileak proposatzen ditugu, gorputz-adimenaren laguntzarekin.

ART & JOY azalpen eta praktiko TAILERRA



60 JOKOen TRANSMIZIOA bideo laburren bidez



Art & Joy IKUSKIZUNA

3/ HELBURUAK

Proiektuaren helburu nagusia traumak bizi izan dituzten pertsonen (ber)eraikuntza indibiduala eta kolektiboa sustatzea da.

Helburu hauek OSASUN MENTALAREKIN bat egiten dute, osasun orokorraren osagai ezinbestekotzat jotzen dena.

Parte-hartzaileen ongizate psikologiko eta emozionala hobetzea, eta bertako animatzaileei tresnak eskaintzea dira proiektuaren ardatz nagusiak.

Proiektuak helburu horiek ditu :

- **Jolasten, sortzen eta antzezten ausartzea, bakarrik eta besteekin.**
- **Autokonfiantza eta autoestimua berreskuratzea sorkuntza ekintzaren bidez.**
- **Harreman pertsonalekin berriro konektatzea, harreman sozialak sendotzea, eta giza kolektiboa suspertzea, elkartasuna eta elkarrekiko laguntza landuz.**
- **Libratzen ausartzea, sormena askatuz.**
- **Pertsona bakoitzaren potentzial artistikoa eta sortzailea garatzea, adierazpen modu anitz eta eskuragarrien bidez.**

Ekintza hauen bidez, Art & Joy proiektuak guztiongan sormen-arima esnatzen du, eta adierazpen artistikoaren aniztasunera irekitzen du.

Kiribil elkarteak jendea elkartzeko, bihotzak baretzeko eta norbanako bakoitzaren hazkunde pertsonala sustatzeko lan egiten du.

4/ TAILERRAK eta Art & Joy MALETA

Konpainia pasako den toki bakoitzean (ospitale, errefuxiatu zentroak, eskolak, etabar...), tailerrak eskainiko ditu, eta ondoren, Art & Joy maleta bat utziko du. Maletak bidaia eta sinpletasunaren ikurrak dauzka, transmizio sinboloa ere, eta esperientzia artistiko jostalarietarako abiapuntu bihurtzen da.

Ondoren, bere publikoaren, helburuen eta beharren arabera, profesional bakoitzak bere tailerra sor dezake egokienak iruditzen zaizkion jokoak aukeratuz.

Maletak lau QR Kode eta objektu sinple batzu dauzka- globo bat, soka bat, oihal batzu – segituan erabiltzekoak.

Maleta taparen azpian, **lau QR kode eskaneatzekoak** daude:

* **Lehenengoak, proiektuaren azalpen orokor dokumentura** eramaten du (hauxe hemengoa), **baita ere film laburraren aurkezpena** (lehenengo, bakoitzak bere hizkuntza hautatzen du).

2. Beste hirurak, jokoak aurkezten dituzten bideo laburrak dira.

Bideo hauek, elkarrizketarik gabe, jarduerak unibertsalki ulertzeko aukera ematen dute, telefonoan edo ordenagailuan ikusita.

Joko artistikoak hiru kategoria nagusitan banatuak dira:

- **C-C « Confidence – Connexion »:** parte-hartzaileen arteko konfiantza, entzuteko trebetasunak eta harremanak garatzeko jokoak.
- **S-M « Set in Motion »:** mugimendua bultzatzeko jokoak, gorputz mediazioa
- **I-C « Imagination – Creation »:** irudimena eta sormena suspertzeko jokoak.

Profesionalek (hezitzaile, erizain, psikologo, erakasle edo laguntzaile...) **tailer batean parte hartzen dute** (2 ordukoa):

lehenik azalpenak jasotzen dituzte, eta ondoren, jolasak dakarren etenaldi alaia guztiz BIZITZEKO joko praktikoak egingo dituzte.

Tailerraren amaieran, **parte-hartzaileek Art & Joy MALETA jasotzen dute** tresna-sorta gisa.

Ondorioz, bertan dauden joko-tresna guztiak ezagutuko dituzte, eta behin jokoekin ohituta, beren publikoari egokitutako tailerrak imajinatu eta zuzendu ditzakete.

Asmoa da hogei maleta inguru uztea 2026ko maiatzean Ukrainian egingo den lehen bidaian.

Maletaren helburua erabiltzaile bakoitzari joko artistikoak ingurukoekin partekatze gogoia ematea da.

Zentroetako hezitzaile, eskoletako erakasle, errefuxiatu-eremuetako boluntario edota artea eta jolasaren bidez loturak eraiki nahi dituen beste edozonek jokoak erabiltzen ahalko ditu.

Hori lortzeko, **bideoetarako sarbidea oso erreza da.** Jokoen edukia nahita eskuragarri dago guztiontzat, artista izan ala ez.

Beharrezko materialak minimoak dira ere: jarduera bakoitza pilota batzuekin, oihal zatiekin edo eguneroko objektuekin egin daitezke.

Behin praktikatuz, erabiltzaile bakoitzak publikoarengan dituen eragin positiboak ikusiko ditu.

Ondoren, jokoak guztiz bereganatuta, beren beharretara egokitzen ahalko ditu, eta joko berriak sortzen ahalko ditu ere.

Horrela, jokoen bilduma etengabe osatuko da guztion ekarpenei eta sormenari esker.

Tailer bakoitzerako gomendatzen dugun metodologia sinplea beti berdina da: CC1: Lasaiketa, ondoren CC2: Gorputzaren Esnatzea... ondoren, gidariak aukeratutako jolasak... eta saioa beti CC1ekin amaitu, berriro ere, lasaitasunera itzultzea.

Ahozko trukaketak ere antolatzen ahal dira amaieran (parte-hartzaileen arabera), denek tailerraren esperientziari buruzko sentimenduak adieraz ditzaten.

Kiribil elkartearen esperientzia artistikoan oinarritzen da: hamabost urte baino gehiago publiko mota askorekin lan egin duena: haurtzarotik (lau hilabeteko ñiñiak), adineko jenderaino, haurrak, nerabeak, errefuxiatuak eta desgaitasun fisiko edo mentalak dituzten helduak barne.

5/ Art & Joy IKUSKIZUNA

Malraux eta Victor Hugo idazleen esaldietan oinarrituta :

—“*Artea da pertsona batetik bestera biderik laburrena*”—

—“*Edertasuna erabilgarritasuna baino erabilgarriagoa da*”—

Kiribileko artistek kaleko ikuskizun bat sortu dute, non-nahi eta guztiontzat antzeztekoa.

Poesia, umorea eta irudimena dira ikuskizun honen elementu nagusiak.

Ikuskizun honen iturria, gure kulturen kokatzen da : zinta-dantza tradizionalan oinarritzen da.

Hemen, sinboliko bihurtzen da, artistek, ikusleen laguntzarekin bakarrik lortuko dutelako beraien masta txirikordatzen : ELKARREKIN lan egin behar dugu zerbait ederra sortzeko!

Ikusleei barrez betetako tarte poetiko bat eskaintzen die, eta elkarrekin berriro ere emozio positiboak bizitzera gonbidatzen ditu.

Helburua denbora etetea da, egunerokoa geldiaraztea da, eta denak poesia eta mundu alai batean elkarrekin sartzeko gonbidapena egitea.

Emanaldiaren ondotik, publikoa jolas artistiko batzuetan parte hartzera gonbidatzen da, elkarrekin jolastearen poza bizitzeko, sormena suspertzeko eta partekatutako esperientzia zabaltzeko.

6/ OSASUN MENTALA ETA TRAUMA

Trauma

Trauma psikologikoak pertsona baten oreka mental eta fisikoan nahasmendu sakona eragiten du. Norabidea galtzea, psikearen disfuntzioa, errealitatearen pertzepzio aldatua eta memoria arazoak dakartza.

Trauma gertatzen denean, emozioak eta memoria erregulatzeaz arduratzen diren garuneko hemisferioen arteko konexio gorakorak deskonektatzen dira norbanakoa babesteko. Amigdalak emozioen kontrola hartzen du orduan, baina behar bezala kudeatzeko beharrezko sarerik gabe.

Ondorioz, emozioak ezegonkor eta aurre-ikusezin bihurtzen dira, errusiar mendi baten antzera agertuz, eta memoriak gaizki funtzionatzen duen bitartean. Fenomeno honek garunak esperientzia traumatikoa modu ordenatuan prozesatu eta integratzeko duen zailtasuna islatzen du.

Estres post-traumatikoari aurre egin

Estres post-traumatikoa osasun arazo garrantzitsua da, batez ere gatazka armatuak eta gerrak diren herrialdeetan. Osasun Agentzia Nazionalaren gomendioen arabera, ezinbestekoa da gizarte-elkarrekintza sustatzea esparru ludiko eta sortzaile batean pertsona hauei laguntzeko.

Hasieran, ezinbestekoa da parte-hartzaileei beren buruarekin eta besteekin berriro konektatzen laguntzea, mugitzen eta jarduera ludikoetan parte hartzen utziz. Pertsona hauek askotan “hautsiak” iristen dira, traumak izoztuta, jarrera itxiarekin.

Tailerra aurrera doan heinean, ireki egiten dira, haien aurpegiak leuntzen dira eta irribarreak agertzen dira.

Tailer osteko argazkiek haien erlaxazioa, gozamina eta poza erakusten dituzte.

Tailerreko gidariek autokritika egiten duten umoreak funtsezko elementua da ere: konfiantza giroa sortzen du eta lasaitasun sentzazioa errazten du.

Une alai eta sortzailea

Aldaketa alai honen indarra atzeman dezakegu tailerretan eta emanaldian zehar. Publikoa (beren hizkuntza ez badakigu ere) presente eta adi dago, artista-pertsonaia hauen aurrean, barre eta jolasa eragiten dietenak.

Partekatzeko une honetan, garunak oxitozina askatzen du, enpatiaren eta harreman harmoniatsuen hormona.

Hormona honek adimena lasaitzen du, estres hormonon jariatzea murrizten du, izua gutxitzen du eta amigdala eragiten du, garunaren zentro emozionala.

Oxitozinaren ekoizpena estimulatuz, ikuspegiak mekanismo hau baretzea du helburu eta konfiantza eta ongizate giroa sustatzen du.

Osasun Mentala

Eguneroko bizitzan, batzuetan jolasteko gaitasuna galtzen dugu baita gure barneko haurrarekin konektatzeko gaitasuna.

Traumatizatuta dauden pertsonentzat, harridura eta jolaserako gaitasun hori askotan erabat lurperatu eta ahaztuta geratzen da.

Talde tailerretan eta emanaldian, fenomeno bat gertatzen da: jolasaren poza eta uneko magia berriro azaleratzen dira.

Parte-hartzaileei baimena eskaintzen diegu haurtzaroko jolas hauekin berriro konektatzeko, ezinbestekoak baitira haien ongizaterako.

Barrea sustatuz eta pertsonak jolasean eta sorkuntzan murgilduz, traumak sortzen dituen mekanismo suntsitzaileei aurre egiten diegu.

Saioz saio, jokoz joko, parte-hartzaileek pixkanaka berraurkitzen dute ondo pasatzeko, dantzatzeko, abesteko eta erlaxatzeko gaitasuna.

Dinamika jostalari eta harmoniatsu honek traumarekin lotutako sufrimenduaren sendagailu gisa jokatzen du.

Pertsona bakoitzaren osasun mentala, baita komunitate osoarena ere, hobetzen da partekatutako joko bakoitzarekin.

Parte-hartzaileen oreka emozionala eta fisikoa pixkanaka berreskuratzen da orduan.

7/ PARTAIDEAK

Art & Joy proiektua ez zen posible izango hainbat partaideen parte-hartzerik gabe:

- Senpereko ARRETXEAK Kolegioa, bideo batzuk filmatzen parte hartze aktiboagatik, baita ikuskizuna sortzen eta Art & Joy maleta apaintzen ere.
- Azkaingo IKASTOLA (ama-eskola eta lehen maila), bideo batzuk filmatzen parte hartze aktiboagatik, baita ikuskizuna sortzen.
- Kiribilekin lotutako artistak, bideo batzuk filmatzen parte hartze aktiboagatik: Gilles Chevillat, Tristan Ciaravino, Julie Cruse, Jean-Michel Dacharry, Fred Dejoie, Yvonne Donzel, Maider Elcano, Jocelyne Flores, Dominique Hidalgo eta Veronike Serre.
- Baionako Cam de Prats Ospitale Psikiatrikoa eta GOXOKI zahar-etxea, ikuskizuna sortzen parte hartzeagatik.
- Gilles Chevillat ikuskizunaren objektu eta apaingarri diseinu eta sorkuntzagatik.
- Aña-Mari Jolimont ikuskizunaren jantzien diseinu eta sorkuntzagatik.
- BERROGAINIA egoitza artistikoa, Labets-Biscay-en kokatua (64), ikuskizunaren sormen egoitza antolatzeagatik eta harrera eginik.

8/ TALDE ARTISTIKOA

Art & Joy proiektuaren taldea gaur egun hiru bitartekaritzek osatzen dute, 2026ko maiatzean Ukrainiara bidaiatuko dutenak: Amaia eta Fabrice, artistak eta tailer-animatzaileak, eta Eric, erizaina, mugimendu ta gorputz tailerraren bitartekaritza.

Isabelle Forner izan zen eskainitako 60 jokoen bideo-grabatzailea eta zuzendaria.

Paxkal Indo, artista eta Kiribil arte-konpainiako kidea, bideo bakoitzari laguntzen dion musikaren musikaria eta konpositorea da.

Maidier Elcano, artista eta Kiribil arte-konpainiako kidea, bideo batzuen filmaketan parte hartu zuen eta proiektuaren lotura eta komunikazio-puntua izango da Euskal-herrian.

Amaia Hennebutte



Amaia, haur literaturan idazle eta ilustratzailea da, ipuin-kontalaria ere, aktorea eta Kiribil konpainiaren sortzaile eta zuzendari artistikoa.

Pertsona bakoitzaren baitan lotan dagoen poesia eta sormena esnatzen saiatzen da.

Malraux idazletik inspiratuta —"*Artea pertsona batetik bestera biderik laburrena da*"— eta Victor Hugotik ere —"*Edertasuna erabilgarritasuna baino erabilgarriagoa da*"—, Amaiak arte eskuragarria defendatzen du.

Ondorioz, Kiribil publiko ezberdinengana doa : ñiñiak, haurrak, adineko jendeak, gaixoak, elbarrituak, desgaitasuna duten pertsonak, errefuxiatuak....

Fabrice Jacob



Bidaiaria, argazkilari gisa, munduko lau txokoetan ibili da, Asian eta Hego Amerikan egonaldi luzeak eginez. Esperientzia hauek urruneko kulturekin eta tokiko komunitateekin lotura estuak sortzeko aukera eman diote.

Ingurumen arazoekiko sentibera, energia berriztagarrien sektoreko aitzindari eta enpresa buru izan zen.

Gaztetik arte martzialak eta txinatar energetika praktikatzen zituen, eta ezagutza hori irakasle gisa ere partekatu du.

Perkusio indiarak eta afrikarrak ikasi eta landu zituen, Indian bertan, baita ere Senegalen eta Bordale hirian.

Gaur egun, argazkilari, musikari eta aktore gisa definitzen du bere burua.

Kiribilen balio humanista eta artistikoekin bat eginez, 2021ean sartu zen konpainian.

Eric Sinké



Bederatzi urtez suhiltzaile profesional gisa aritu ondoren, 1990ean Errumanian izandako esperientzia humanitario batek aldaketa handia markatu zuen bere bizibilbidean : erizain izateko ikasketak egitea erabaki zuen.

1995ean graduatu zenean, esperientzia anitza lortu zuen hamasei urtez haurren psikiatriari eskainiz ospitalean.

Bere konpromiso humanarioa hainbat misiotan jarraitzen du: hiru hilabete Perun Sol y Lunarekin, eta ondoren sei misio Ukrainian gatazka hasi zenetik.

Arretarako ikuspegi holistikoa garatu du, bihotz-koherentzia eta gorputzean oinarritutako terapia integratuz.

Ukrainan egindako azken misioan, sistema berritzaile bat ezarri zuen martxan: gerrak kaltetutako populazioen artean antsietatea arintzeko errealitate birtualeko kaskoak.

Isabelle Forner



Hogei urte baino gehiagoz ikus-entzunezkoen arloko profesionala izan da, Arleseko Argazkilaritza Eskola Nazionalean graduatu zen eta ikus-entzunezko sorkuntza proiektu kultural eta artistikoen koordinazioarekin uztartzen du.

Bere ibilbideak egile-lana, zuzendaritza teknikoa eta proiektuen kudeaketa uztartzen ditu, ikuspegi sortzaile eta kolaboratibo batean, pertsonei eta testuinguruei erreparatuz. Filmak eta argazkiak ekoitzi ditu erakundeentzat, enpresa pribatuentzat eta telebista-kateentzat Frantzian, Asian, Afrikan eta Kanadan. Bere praktika artistikoa bideo-instalazio proiektuen eta artisten egoitzen edo enkargu publikoen esparruan egindako gune espezifiko bidez adierazten da.

Paxkal Indo



30 urte baino gehiagoz euskal kultur sorkuntzan sartuta, oholtza gainean hasi zen musikari gisa. Azkar bihurtu zen soinu eta argi teknikari hainbat kultur proiektutan.

Itsasuko Errobiko Festibala lehenengo jaialdietako zuzendari teknikoa izan da, eta ZTK-k ekoiztitako ikuskizun guztiena da (Animalien Ihauteriak, Aitarik ez dut, Duda etab...), baita Kiribilen ikuskizunena ere.

Pirotecnia VALECEA enpresako C4-T2 piroteknikaria izan da ere, eta argi “elektrikoa eta piroa” sortu zuen Pantxika Telleriak eta Christophe Hiriartek Lagunarterako “ZUN” ikuskizunerako.

Gaur egun, PIROTEK-eko artifizial nagusia da. Cie des Syrtes-eko zuzendari teknikoa da ere.

ZTK diskak ekoizpena eta ZTK liburuak argitalpen proiektuak gainbegiratzen ditu.

Maidier Elcano



Maidier Elcano idazketa eta bideo lanak errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak aztertzen dituen artista da. Dokumentalaren eta narrazio espekulatiboaren arteko uztarketa egiten du, egunerokotasuna distortsionatuz errealitate paraleloak agerian uzteko. Lyon-eko Arte Ederren Goi Mailako Eskola Artean (École nationale supérieure des beaux-arts de Lyon) DNSEP lortu zuen 2011n, eta ordutik testua eta irudia uztartzen dituen unibertso bat garatu du, kontakizun sensible eta murgiltzaileak eraikiz.

Komunikazioan eta koordinazioan dituen gaitasunak proiektu kulturalen garapenaren zerbitzura ere jartzen ditu. Egituratzearen, balioztatzearen eta ekimen artistikoen hedapenaren bidez, kultura eta arte arloko egiturak laguntzen ditu.

Art & Joy

